

Elizabeth Dolek bere hautagaitza utzi eta Bushenarekin bat egin du

Lehendakarigai horrenganako konfiantza eskatu die estatu batuarrei

Erredakzioa / Donostia

Alderdi Errepublikarretik EEBBetako lehendakaritzarako hautagai izatera iritsi nahi izan zuen Elizabeth Dolek bere babes osoa eman zion atzo George W. Bushen

hautagai-zerrendari, azaroan egingo diren hauteskundeetara begira. Dolek Bushen irudia laudatu zuen: «Estatubatuarrek konfiantza izan dezaketzen presidentea da Bush», adierazi zuen atzo Bedforden egin agerraldian.


DATORREN azaroan EEBBko lehendakaritzarako egingo diren hauteskundeetarako errepublikarren hautagai den George W. Bushi eman zion atzo bere babes Elizabeth Dolek, iragan urrian hautagai-zerrenda aurkezteko zituen asmoak erretiratu ostean.

Iragarpena Bedforden (New Hampshire) izandako ekitaldi politikoan egin zuen Dolek. Han izan zen Bush bera ere. Texaseko gobernadorearen aldeko laudorioak bota zituen bere hitzaldian Dolek. «Bush-ek irabazi dezake eta herri baten buru izan daiteke», adierazi zuen hautagai ohiak.

«Lehendakari berria estatubatuar guztien lehendakaria izan behar du. Zuzentasuna eta etorkizunerako ikuspegia izan behar du. Hori da Bush», baieztatu zuen Dolek errepublikar jarraitzaileen aurrean.

Bushen proposamenengan bere konfiantza adierazi zuen Dolek, hezkuntza, gizarte segurantzaren eta zergen murrizketan, batik bat. Zergak murrizteko egin proposamenaz esan zuen «errealista» dela eta lortu daitekeela. Gizarte segurantzari buruzko Bushen ikuspegiak «klase baxuko herritarrek klase ertainera igotzea erraztuko du».

«Elkartasunezko eta errukitasunezko kontserbadurismoaren» aldeko Bushen kanpainari buruz, Dolek nabar-



Elizabeth Dole eta George W. Bush Bedforden egin agerraldian.

mendu zuenez hori «errukia da».

Ekitaldiaren ondotik, Dole eta Bush Iowa joan ziren hegazkinez Des Moines eta Davenporten beste ekitaldietan parte hartzera.

Lehendakari ordea izateko asmoa

Agerraldi horien bitartez, Elizabeth Dole EEBBko lehendakaritza orderako bere izena kontuan har dezaten nahi du, George Bush presidente ohiaren semearekin batera.

Etxe Zurirako bidea utzi zuen joan zen urrian Dolek, 5 milioi dolar bakarrik lortu baitzituen, ordurarte Bush-ek

lortutakoaren %10 soilik. Texaseko gobernadoreak 50 milioi dolar lortu zituen.

George W. Bushen arerio nagusia John McCain senadore errepublikarra da. Vietnameko gerran preso ohi izandakoa da McCain eta heroi militarren irudi horrek mesede egingo dio errepublikanoen hautagai-zerrenda lortzeko piztu duen lehiari. Tabako enpresen aurka eta EEBBko bizitza politikoaren finantziario sistemaren aldaketak aldarrikatu du McCain.

Inkesten arabera, McCain aukera asko ditu Iowan eta New Hampshiren irabazteko.

Ocalanen txostena Legebiltzarrerara bidaltzeko eskatu du Turkiako Gobernuak alderdi batek

■ Exekuzioari buruzko erabakia hartuko du koalizio hirukoitzak hilaren 12an

Erredakzioa / Donostia

ABERTZALEEN EKINTZARAKO ALDERDIAK (MHP), Turkian hiru alderdiek osatzen duten koalizio bikoitzaren alderdi nagusia, Abdullah Ocalanen heriotz zigorra aztertzen duen txostena «lehen bait lehen» Legebiltzarrerara bidaltzea eskatu du.

Alderdiak bere baimena

eman zion bere ordezkari Devlet Bahceliri datorren urtarrilaren 12an koalizio alderdiek egingo duten bilerara joateko. Ocalanen exekuzioari buruzko erabakia hartuko dute bileran.

Ocalanen auziaren aurrean bilera izan zuten MHPko buruzagiek eta euren politika zehaztu zuten. «Gure ustez, prozesuak aurrera egin behar

du lehen bait lehen eta txostena Legebiltzarrerara bidali behar da», esan zuen Mujdat Kayayerli diputatuak.

Bestalde, Turkiako Segurtasunerako Auzitegiak atzo erabaki zuenez, ez da Ismail Cem Kanpo Arazoetarako ministroaren aurkako ikerketarik irekiko, telebistan hizkuntza kurdoaz ezartzearen alde azaltzeagatik.

l a b u r r e a n

I N D O N E S I A

■ Kristau eta musulmanen arteko liskarrek ehundaka hildako eragin dituzte Molucaseko irlan

BESTE hamazazpi pertsona hil ziren atzo Ceram irlako Masohi herrian, Yakartako mendebaldetik 2.300 kilometrotara, musulman eta kristauen arteko liskarretan. Masohiko istiluak Urte Zahar egunean hasi ziren eta egun horretan hamabost pertsona hil ziren eta dozenaka zaurituak izan ziren. Egun bat lehenago, Tobeloko herrian, Halmahera irlan, 265 pertsonak bizia galdu zuten beste istilu batean eta atzo beste hiruk irla berean. Gainera, 'Antara' berri agentziak atzo jakinarazi zuenez, Togolua herrian 200 musulman hil zituzten hilaren 27an. Irlan arteko komunikazio eskasak zaildu egiten du hildakoen kopurua zehatza jakitea.

K U B A

■ EEBBetako agintariak Elian Gonzalez Kubara bidaliko duten beldur dira haurraren senideak

EEBB-ETAN dauden Elian Gonzalezen senitarteak uste dute EEBBko agintariak behar diren neurriak hartzen ari direla haurra Kubara itzultzeko. EEBBko Inmigratio Zerbizuetako funtzionarioak bigarren aldiz bildu ziren Kuban Elianen aita Juan Miguel Gonzalezekin, haurraren abokatuek jakin gabe. Horrek, senideen beldurra areagotu du. Bestalde, 'The Washington Post' egunkariaren arabera, EEBBetako agintariak Kubako Gobernuari eskatu diote Elianen aitari utz diezaioten Maiamira joaten, haurra Kubara itzuli dezan. Elian Gonzalez itsasoan erreskatatu zuten amarekin batera zihoan itsasontzia hondoratu ostean.

T X I N A

■ Falun Gong talde budistaren ehun kide atxilotu dituzte Txinan urte hasieratik

FALUNG GONG talde budistaren ehun kide atxilotu dituzte Txinan urtea hasi zenetik. Atxilotak gehienak Tiananmengo plazan izan ziren, han biltzen baitira Falun Gongeko jarraitzaileak errebatzera. Iragan igandean talde batek 'Falun Dafa' (sektaren izen txinatarra) jartzen zuen pankarta bat zabaldu zuten. Azken asteotan, berriz, polizia inguruak behatzen ari dira istiluak sortuko dituzten beldur. Atzo bertan, sekta bereko kide Li Fujunek lau urteko espetxe zigorra jazo zuen plaza horretan protesta bat antolatzeagatik. Txinako Gobernuak 1.400 pertsonen hilketa egotzi dio taldeari, horiei gomendatu zieten sendagaien tratamenduak uzteko eta, horren ordez, errebatzeko.

T X I L E

■ Augusto Pinochet aztertuko dute hiru sendagilek

GAURTIK aurrera, Britainia Handiko hiru sendagilek Augusto Pinochet Txileko diktadore ohiak aztertuko dute Txileko Gobernuak hala eskatuz. Arrazoi humanitarioak eta osasun egoera argudiatuz, Pinochetaren askatasuna aldarrikatu du Txilek eta horregatik agindu du diktadore ohiaren osasunaren azterketa. Azterketak eskuan dituela, Britainia Handiko Barne ministro Jack Strawk estradizioarekin jarraitzea edo aske uztea erabakiko du. Aukera gutxi ditu Pinochetek aske geratzeko arrazoi horiek direla medio.



Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria